

Informazio-orria

Presatxikiak mantendu eta konpontzeko jarduketak egiteko erantzukizunpeko adierazpenaren eskaera

Agiri honen bidez eskatzaileari jakinarazi nahi diogu zer izapide egin behar duen presatxikiak mantendu eta konpontzeko jarduketetarako erantzukizunpeko adierazpena egiteko.

1 Baimena nork eskatu behar duen

Honako obra hauek egin nahi dituen edozein pertsonak edo entitatek: mantentze- eta konpontze-obrak, aprobetxamendu hidroelektrikoen emakidadunen presatxikietan edo presetan edo ureztatzaile-komunitateen harguneetan; edo emakidadunen presatxikiak edo hargunak hobetzeko, konpontzeko edo mantentzeko edo haietan teknologia eguneratzeko obrak.

Dagokion eskubiderik izan gabe alaketak egiten badira, zehapena ezarri ahal izango da..

2 Nola eta non eskatzen den

Eskabide-eredu bat dago, eta han jasotzen da zer datu bete behar den eta zer agiri aurkeztu behar den espedienteaz izapidetzeko. Eskabidea modu telematikoan bete daiteke, URaren webgunean, edo izapidea aurrez aurre egin daiteke, eskabidea beteta eta eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuta, hemen:

- **Arroen egoitza nagusiko edo bulegoetako sarrera-erregistroetan:**

1 Vitoria-Gasteiz

- Boulevard eraikina
- Gamarrako atea 1 A, 11. solairua
- 01013 Vitoria-Gasteiz

2 Bilbo

- Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua.
- 48011 Bilbo

3 Donostia

- Intxaurrondo 70, 1. solairua
- 20015 Donostia

- **Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotzen diren lekuetan (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf>).**

3 Jabari Publiko Hidraulikoa eta Zaintza Eremua

Uren Legearen testu batekin (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2001/BOE-A-2001-14276-consolidado.pdf>) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (<https://boe.es/buscar/pdf/1986/BOE-A-1986-10638-consolidado.pdf>), zehazten dute zein diren jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak: ibilguak, urtegiak, etab.

- Honako hauek osatzen dute **Jabari Publiko Hidraulikoa (JPH)**:
 - Ur kontinentalak, bai azalekoak bai lurpeko berriztagarriak, kontuan hartu gabe berritzeko denbora.
 - Korrante naturalen ibilguak, izan jarraituak edo etenak.
 - Laku eta aintziretako hondoak, eta ibilgu publikoetako azaleko urtegien hondoak.
 - Akuiferoak, ur-baliabideen xedatze- edo eragin-egintzen ondorioetarako.
 - Itsasoko ura gatzgabetzetik datozen urak.

Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak ezartzen duenez, erantzukizunpeko adierazpena arro-organismo eskudunari aurkeztuko zaio.

4 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ahal dela, dokumentazioa euskarri digitalean eta .pdf formatuan aurkeztuko da, elektronikoki sinatuta.

1. Kasu guztietan aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra:

- ☐ Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua, behar bezala beteta eta sinatuta.
- ☐ Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua. Baldin eta baimen-eskabidearen sinatzailea interesduna ez bada (ez dago aurkeztu beharrik, ordea, baldin eta ordezkaria alta emanda badago Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroan <https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>):
 - Ordez kari bidez izapidetzen duten pertsona fisikoek notario-ahalorde baten bidez egiaztatu beharko dute ordezkari tza, edo, bestela, fede-emaile publikoaren aurrean sinatutako ordezkari tza-akta baten bidez. Bi aldeek sinatutako idazki bat ere onartuko da.
 - Pertsona juridikoen kasuan, berriz, beharrezkoa izango da notario-ahalordea eta erakundea eratze ko eskritura aurkeztea, bai eta ordezkariak eskabidea sinatzea ere.
- ☐ Jardueren deskripzio-memoria, jardueren justifikazio eta guzti.
- ☐ Jarduketa-eremuaren gaineko dokumentazio grafikoa, planoak, argazkiak, haien bidez jarduketa bera eta haren neurriak baloratzeko.

5 Epe adierazia

1. Eskaera lanak hasi baino gutxienez 15 egun bali odun lehenago aurkeztu beharko da (alde batera uzten dira larunbatak, igandeak eta jaiegunak).
2. Jarduketak egiten hasi aurretik, Uraren Euskal Agentziaren ikuskapen-zerbitzuaren telefonora deitu beharko da (945 011 700).
3. Erantzukizunpeko adierazpena sinatuta, eskatzaileak eskabidean ezarritako konpromisoak onartzen ditu.